



MUSIKA

# Sonoritateak menderatzen dituzten emakumeak



BOS

Bilbao Orkestra Sinfonikoa. **Zuzendaria:** Günter Neuhold. **Bakarlarria:** Martina Filjak (pianoa). **Egitaraua:** Smyth, Saint-Saëns eta Txaikovsky-ren obrak. **Lekua:** Euskalduna Jauregia (Bilbo). **Data:** abenduaren 3a.

## MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**B**ilbao Orkestrak kontu handiz pentsatzen ditu bere abonuzikloan eskaintzen dituen programak. Azken hau ez zen salbuespena izan eta interes handiko hiru lanek osatu zuten, hainbat arrazoiengatik.

Bestalde, taldearen aurreko zuzendari titularrak, Günter Neuhold-ek, burututako zuzendaritza izan zen kontzertua arrakastara eraman zuen beste osagaie-tako bat. Zuzendaritza horretan, une oro, soinu zaindua, kontraste argiak eta, piano eta orkestrarako kontzertuaren kasuan, orkestraren eta bakarlariaren arteko el-karrizketa perfektua nagusitu ziren.

Kontzertua *On the cliffs of the Cornwall* pieza gozagarriarekin hasi zen, Ethel Smyth-ek konposatutako *The Wreckers* operaren bigarren ekitaldiaren prelu-dioa dena. XIX. eta XX. mendeen artean

bizi izan zen konpositore britainiarra musikari ona izateaz gain, lider sufragista ere izan zen. Lan asko konposatu zituen eta bere garaiko konpositoreek miretsi zuten bere obra. Bestalde, New Yorkeko Metropolitan-en bere operak antzeztea lortu zuen lehen emakumea izan zen. Bilbao Orkestrak konposizio horren zuku guztia ateratzen jakin zuen, obraren aberastasun tinbrikoa nabarmenduz.

Ondoren, Saint-Saëns-en *2. piano eta orkestrarako kontzertua sol minorrekoa*, *op. 27* interpretatu zuten; Martina Filjak kroaziar piano-jotzailea izan zen protagonista. Azken urteetako bakarlari onenetakoa dugu Filjak andrea. 2009ko Cleveland-eko Nazioarteko Piano Lehiaketa irabazi zuen eta pianoan soinu benetan eder eta pertsonalaren jabe da.

Oso modu delikatuan interpretatu zuen kontzertua, kristalezko soinu harri-garriz eta fraseatze gozo eta ederrez. Baina agian bere bertutean datza bere akats txikia. Interpretazioa pertsonala eta bikaina izan zela ukatu gabe, Filjak-ek alde ez-titsu samarra du, lehen mugimenduan gehiegizkoa, nire ikuspuntutik. Nolanahi ere, obraren bigarren eta hirugarren mugimendu zailetan segurtasun handia eta nagusitasun tekniko osoa erakutsi zuen. Gainera, Arvo Pärt estoniarraren pianorako pieza bat oparitu zigun, eta bakarlariak publiko aho zabalik utzi zuen lortu zuen soinu hotz eta tindagarriarekin.

Egitaraua Txaikovsky-ren 5. Sinfonia indartsu eta bikainarekin amaitu zen, Neuhold-en batutak garbo eta irmotasunez eramana. Oso kontzertu ona. ●